



Urumeako 256 hektarea babestuko ditu Eusko Jaurlaritzak; tartean, Osiñagako erriberak

Orain arte baino babes haundiagoa izango dute Urumeako 256 hektarea horiek. Lehen 74 hektarea babestuta zeuden; orain 182 hektarea gehiago. Gipuzkoako beste 5 ibai ere babestu ditu Jaurlaritzak.

HIRIAK zabaltzen ari dira, eta horrek, ezinbestean, naturari eragiten dio. Eusko Jaurlaritzak, natur-inguru garrantzitsuenak babesteko dekretu berri bat atera du, eta Gipuzkoako 6 ibai babestu ditu, tartean Urumea. Urumeako 74 hektarea lehen ere babestuta zeuden; orain, beste 182 hektarea babestu ditu. Guztira, 256 hektarea.

Lehen ibaia bera babesten zen batez ere, eta dekretu berriarekin, asko terreno gehiago babestu dute. Urumean, lehen babesik ez zuten 5 erreka eta erreka-bazter babestu dituzte: Epelerreka, Usokoerreka, Erramuerreka, Sagarreta, eta Etxolaberri-Urruzono.

Horrez gain, Hernaniko erriberak ere babestu dituzte: Altzuetako erriberak, Osiñagako erriberak eta Portu-Karabel erribera zati batzuk.

Babes Bereziko Eremu 'BBE' Babes haundiagoa izango dute, beraz, erreka-inguru horiek (lehen babestuak zeudenek eta orain erantsi diz-



Urumea Babes Bereziko Eremua (BBE) dela esan du Jaurlaritzak.

kiotenek). Babes Bereziko Eremu deitu diote (BBE); lehen GKL ziren. Horrek esan nahi du, lur horietan ez direla baimenduko zenbait operazio edo obra, eta horrez gain, neurriak hartuko direla, zonalde horietako animalia, arrai, edo landareak babesteko.

Urumean 932.400 euro gastatuko dira 6 urtean Zonalde horiek babesteko, zenbait neurri hartuko ditu

Eusko Jaurlaritzak, eta dekretua onartzen bada, 6 urtean, 932.400 euro gastatuko dituzte lan horietan.

Urumeako aberastasuna Urumea ibaiak sekulako aberastasuna dauka, animalia eta landareetan. Udalak lagunduta, orain gutxi egin azterketak hartu dituzte oinarri, Urumeari BBE babesa emateko, tartean, Olariaga eta Sanz-Azkue biologoek egindako lanak. ||

BABESTUKO DITUZTEN ZATIAK

Lehen babestuak: 74 hektarea
Orain babestuak: 256 hektarea

- Urumea ibai nagusia
- Epelerreka
- Usokoerreka
- Erramuerreka
- Sagarreta
- Etxolaberri-Urruzono

Erriberak:

- Altzuetako erriberak
- Osiñagako erriberak
- Portu eta Karabeleko erribera zati batzuk (ibaiaren kontra).

FAUNA ETA FLORA INTERESGARRIA

Zonalde horiek babesteko arrazoi haundi bat, landare eta animalia aberastasuna da:

- Bisoi europarra
- Ur satorra
- Izokina
- Soldanella villosa
- Trichomanes speciosum
- Veratrum album
- Haltzak, lizarrak, txillardegia, pagadiak, hariztiak, ametzak...
- Uretako hegaztiak (eta abar luze bat)

❖ HERNANI'N MUSIK

Sarrerak salgai, Muguruza eta Atxaga ikusteko

Ostiralean poesia eta musika emanaldia eskainiko dute Bernardo Atxagak eta Jabier Muguruzak, *Paradisuz* izenekoa. Sarrerak salgai daude Biterin, gaurtik aurrera, 6,65 euroan. ||

❖ JABETZE ESKOLAK Apuntatzeko azken eguna, gaur

Jabetze Eskolak izeneko 6 ikastaro antolatu ditu Udalak martxotik ekainera, eta apuntatzeko azken eguna gaur da. Informazio gehiago eta izenematea, Sandiusterrin. Telefonoa: 943 337 017. ||

❖ AHT

Espropiazioen kontrako ekitaldiak, aste honetan

AHTko espropiazioak otsailaren 24-25-28an egingo dira, eta AHTren kontrako taldeak ekitaldiak antolatu ditu, asteazken eta ostegunean. Asteazkenean, herri batzarra eta txarla izango dira; ostegunean, kontzentrazioa, paroak, eta eztabaida. ||

❖ ZILEGI ESKOLAK

AHTri buruz, gaur

AEK euskaltegiak bi hitzaldi antolatu, Zilegi Eskolen barruan. Gaur, 18:00etan, AHTri buruz ariko dira, AEKko lokaletan (Larramendi, 11). Martxoaren 2an, inauterietako makillajeari buruz. ||

❖ HAMAİKABAT

Pello Gonzalez, ostegunean Biterin

Hamaikabat alderdiko Ogasun eta Finantza Diputatuak, Pello Gonzalezek, hitzaldia emango du datorren ostegunean, 19:00etan, Biterin. Beste gai batzuren artean, Iruzur Fiskalaren kontrako borrokari buruz ariko da. ||

❖ BERTSO AFARIA

Lujanbio eta Arzallus, ostegunean

Datorren ostegunean, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus (Euskal Herriko Txapelduna eta txapeldunordea) bertsoan ariko dira Kontrakantxa Gaztetxean. Afarria 20:30etan da, eta afari-txartel guztiak salduta daude. ||

❖ HITZALDIA

'Nola egin aurre torturari?', etzi Udaletxean

Hitzaldia emango dute datorren asteazkenean, 19:30etan, Hernaniko Udaletxean. *Nola egin aurre torturari?* izenburua dauka hitzaldiak, eta torturaren kontra hilabete zehar egin diren ekitaldien barruan dijoa. ||

❖ MOZORRO FESTA

Mozorro Festarako entsaioa, bihar

Inauterietan, larunbatean, Mozorro Festa egingo dute Atsegindegin, musika-zale gazteek. Dei egin diete, animatzen diren guztiei zerbait prestatu eta parte hartzera. Horretarako, entsaiatzen ari dira, eta gaur da entsaioa, 17:00etan, Biterin. ||

❖ OGASUN BATZORDEA

Tasak aldatzeko proposamena, gaur

Tasak izango dituzte hizpide gaur, Ogasun Batzordean, 13:00etan Udaletxeko Bilera gelan (4. pixua). Haur Eskola, Musika Eskola, Udala Euskaltegia edo hirigintzako tasak aldatzeari buruz ariko dira gaur. ||

IRRIGOENEA OKINDEGIA
EGUNEROKO OGI BEROA
GAZTELOKO PASTELAK eta TARTAK ENKARGUZ
OPIL ETA PASTA BIKAINAK

BARIETATE HAUNDIA INTEGRALETAN:
OJALDREZKO PALMERAK
KURASAN ZEREALDUNA
MADALENAK
OGI INTEGRAL HAZIDUNA

ETA ASKOZ GEHIAGO !!

Lizeaga I (Portalez kanpo) telf. 943 33 17 25
HERNANI

Arregi
Altzariak

ERAKUSKETA
ALDAKETARENGATIK
ESKEINTZA BEREZIAK

ELKANO KALEA, 10
20120 HERNANI
TEL: 943 55 21 04

INSTALHER
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

IBERDOLA: BEZERO ARRETA ZERBITZUA.
- MOTA GUZTIETAKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zatoz eta informatu zaitetz!

NAFAR KALEA, 17
20120 HERNANI
GIPUZKOA

instalher@instalher.e.telefonica.net
943 55 33 01
616 58 32 02
606 94 23 96

☎ TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622
 ● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK ● Egunez: **Etxebeste** Elkano 2 - 943 552087 ● **Gauz:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA
GAUR Euri giroa izango dugu gaur. Goizean zaparrada handirik ez, eta lanbroa nagusi. Arratsean pulamentuz egin dezake. Hoztu egingo du. Min.7° / Max.14°
BIHAR Bihar ere urdin gutxi ikusiko dugu. Lainoa eta lanbroa egun guztian, eta zaparrada handirik ez. Ipar-mendebalako joko du. Tenperaturak berdinean. Min.9° / Max.13° (euskaime)



Ayman Qwaider eta bere taldeko kide bat, ostiralean.

❖ KONTRAKANTXA - HITZALDIA

Egiptori buruzko hitzaldia, gaur, Kontrakantxan

Munduko herrialdeen berri jakiteko aukera jarri du Kontrakantxak azken egunetan. Ostiralean Palestinari buruz aritu zen Ayman Qwaider, eta 50 lagun bildu ziren. Gaur, Egiptoko bi herritarrek kontatuko dute, Egipton zer gertatu den, horrelako iraultza egiteko. Hitzaldia Kontrakantxan da, 19:00etatik aurrera. ||

❖ ELIZA

Munillak familiari buruz hitz egin zuen, Hernanin

Boto erlijiosoa eta matrimonia elkarrekin dijoazela azaldu zuen Jose Ignacio Munillak, Gipuzkoako Gotzaiak, joan den larunbatean Hernanin. Inmaculada ikastetxean izan zen larunbatean Munilla, eta San Joan Bataiatzailea parro- kian ere bai, familiari buruzko topaketa batzuetan. Inmaculadako areto nagusia bete-xamartu egin zen, familia aipatu zuen Gotzaiak, zazpi puntutan banatuta. Boto erlijiosoa eta matrimonia ez liratekeela banatu behar esan zuen. Jesukristok erakutsitako maitasunak eredu izan beharko lukeela, familia kristau batean, eta erromantizismoan oinarritutakoa baino egiazkoagoa dela. ||



👉 Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartu-ko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Erraustegia bankuen menpe

EAJ-PNV, PSE-PSOE, PP eta Hamaikabat alderdi politikoek kostala ala kostala errauskailua eraiki nahi dute eta proiektua ondo lotuta utzi, horretarako haren kontrola bankuen esku uzten badute ere.

Legealdia bukatu aurretik erraustegia egitearen hari mutur guztiak ondo lotu nahi dituzte aipatutako alderdiek, horrek ekarriko duen ondorioa, hiri-hondakinak kudeatzearen kontrola bankuen esku uztea baldin bada ere; kredituak eman dituzten bankuen esku, hain zuzen. Gaurtik aurrera bankuek zuzenduko dute hondakinak kudeaketa, esaterako, salneurriak jartzea edota kompetentzia banaketa euren esku egongo dira eta.

Onartezinak dira errauste-

gia finantzatzeko hartu diren erabaki hauek, eta inola ere ezin dut akordioekin bat egin. Batetik, nola ulertu daiteke Europako Inbertsio Bankuak Europako ingurumen arauak argi eta garbi hausten dituen egitasmoa finantzatzea? Banku honek ez luke inola ere dirurik jarri behar Europako araudia errespetatzen ez duen proiektu honentzat. Bestalde, lotsagarria da La Caixa eta Banestok negozioa egitea ingurugiroaren lepotik eta herritarren osasunaren lepotik: osasuna edo ingurumenaren aurretik jartzen dute bankuek negozioa.

Ez naiz harritzen, baina sutan jartzen nau Foru Aldundiaren eta erakunde honetan ari diren EAJ, H1, PSOE eta PPko ordezkarien jarrerak. Erabaki eta akordio oso gaiztoa hartu dute eta ondorio larriak

sufrituko ditugu. Erabaki lotsagarri horiek geroa baldintzatu egingo dute ekonomikoki eta politikoki, bankuei emango baitiete ahalmen osoa, gerora egin daitekeen edozein aldaketa oztopatzeko, gainbegiratzeko eta kontrolatzeko. Eta zein da horren helburua? Horrela, erraustean oinarritutako hondakinaren tratamendua babestu eta betikotu nahi dute, hurrengo foru eta udal hauteskundetan seguru aski etorriko den aldaketa eta erabakiaren berri- kuspena baino lehen.

Ricardo Ortega Gonzalez

Gipuzkoako Hondakinak Kudeaketako Kontseiluko kide eta Lasarte-Oriako Ezker Batua Berdeak taldeko zinegotzia San Marko Mankomunitateko presidente ohia

KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA			PELOTA-Euskal Herriko txapelketa		
Erreg. Oh. Maila	Oiarzun-Hernani	0-2	Sub 22	Arrieta-Aizpitarte/Otamendi-Murgiondo	16-22
Erreg. 1go maila	Hernani-Mariño	3-6	Seniorrak	Ojuel-Gorrotategi/Lopez Aldai-Lopez	11-22
Jubenila Liga Naz.	Danok Bat-Hernani	6-2	PELOTA		
Jubenila 1. Kopa	Hernani-Luberri	2-0	Alebinak	Gure Txeru/Garmendia-Noble II	16-7
Kad. Oh. Maila	Real Union-Hernani	2-1	Alebinak	Azkotia/Alkorta-Erdozia	16-11
Kad. 1go maila	Ekintza-Hernani	2-1	Infantilak	Añorga/Iglesias-Loiarte	18-13
Infantil Oh.Kopa	Sporting de Herrera-Hernani	3-0	Infantilak	Allerru / Cisneros-Rodriguez	4-18
Infantil. Txiki	Hernani-Dunboa Eguzki	1-2	Jubenilak	Etzenike-Etxegoien / Oiarpe	40-35
Infantil. Neskak	Hernani-Mariño	1-1	Seniorrak	Usurbil/Oiaga-San Sebastian	21-22
Inf. Txiki. Partehar.	Urnieta-Hernani	2-3	Seniorrak	Legazpi/Ezeiza-Esnaola	5-22
Alb. Txapeladunen f.	Kostkas-Hernani	2-1	Seniorrak	Mendizabal-Zurutza/Orio	21-40
ERRUGBIA			PALETA GOMA		
SenA. Errege Kopa	Hernani-Oviedo	32-16	1.maila	Irazustabarrena-Arrieta/Urtasun-Urtasun	30-10
Jub. (Euskal Liga)	Ordizia-Hernani	10-12	ERREMONTA		
Kad. (Euskal Liga)	Hernani-Atl. San Sebastian	55-10	1. partidua	Endika-Zubiri / Urrutia I-Baleztena	35-33
ARETO FUTBOLA			2. partidua	Zeberio II-Barrenetxea IV / Juaristi-Olazar	29-40
1.maila	Ventanas ISU-Hernani	6-2	3. Partidua	Matxin IV-Lizaso / Zulaika-San Miguel	27-40
			4. Partidua	Oñatz-Agirrezabala / Matxin IV-Aizpuru	30-23

◆ ARETO FUTBOLA

6-2 galdu, emaitza esajeratuegia, partidua nola joan zen ikusita

Yone Boutique taldeak galdu egin du asteburuan, 6-2, Lasarteko Ventajas ISU taldearen kontra. Jokoa ez zen hainbesteko alderik izan. Jokaldi klabe batzuk, eta fisikoak zer esan handia izan zuten. 29garren segunduan, 1-0 irabazten ziren lasartearrak. Yone Boutiquek 1-2 jartzea lortu zuen, joko onari esker. Pase kaxkar bat eskuadratik sartu, eta zorioneko joan ziren deskantsura lasartearrak. Bigarren zatian, Hernani erasoan, eta Lasarte kontraerasoan. 4-2, 5-2, eta 6-2. Asko nekatu ziren hernaniarrak, eta ez zuten aukerarik aprobetxatu. Yone Boutique 7garren dago orain. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu: 638 389 594 (17:00etatik aurrera).

Emakume arduratsuek umeak edo adineko pertsonak zainduko lituzke. Baita garbiketa edo etxeko lanak ere (interna/externa). Deitu: 626 751 482 / 943 554 242.

Gela alokagai Kale Nagusian. Sukalde eskubidearekin. Hilean 300€ + gastuak (gasa, ura...) Deitu: 659 363 944 (Agustin)

Pisu ederra salgai Latsunbe Berrin. Sukaldea, egongela, 3 gela eta 2 komun. Egoera onean. Trastelekuarekin eta garaje itxiarekin: 360.000 euro. Tel: 600039938

Garaje itxia alokagai, Zinkoenean. Deitu 677 513 257

Pisua salgai Latsunbe-berrin. Behe planta. 61m2. Sukaldea, saloia, 2 gela eta komuna. Terraza (25m2) eta lorategia (52m2). Garajea ere aukeran. Deitu: 678 740 750

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antena ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

ENARA GOIKOETXEA. Terapia energetikoak, Kristaloterapia, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reikia, Tarot terapeutikoa. 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)

YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak. Fotorejuvenecimiento, Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Keunka
MUEBLE RUSTICO

OUTLET EXPOSIZIO BERRIA

ZATOK !!

EZ UTZI AUKERA PASATZEN !!

ORDUTEGIA:
ASTELEHENETIK
OSTIRALERA
09:00-13:00
15:30-19:00

**MUNDU GUZTIKO ALTZARIAK
DENA KOSTU PREZIOAN !!**

ALTZARIAK ETA ARGITARIAK,
AURREKO DENBORALDIETAKO "STOCK"-a

OUTLET !! Pol.Ind. ZUBIONDO - NAVE 4B-1 (20120, HERNANI). Tel: 943 33 10 81 **OUTLET !!**

Mendi Lore

loradenda, jardineritza

Larramendi 5, HERNANI. Tel: 943 55 23 26.